



Haur eta Gazte Literatura

Zurginaren ipuina
Iban Barrenetxea
Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea.
Txalaparta, 2013

Lehengoa hobetzen

IBAN BARRENETXEA ilustratzaile gisa da ezaguna gure inguruan, baina sarritan gertatzen den bezala, ilustratzaileak bere testuak idazteari ekin eta *Zurginaren ipuina* lana eskaini zigun 2011n (eta Euskadi saria eskuratu bigarren urtez jarraian, kasu honetan gaztelaniazko arloan). Orain, Arkaitz Goikoetxearen itzulpenari esker, euskaraz goza dezakegu Firmin zurginaren istorioaz. Izan ere, bere lana bikain egiten zuen zurgin baten kontakizuna dugu liburu hau: “Hark egindako gurpilak hain ziren perfektuak, aski izaten zen begiradarekin bultzatzea jiraka has zitezen. (...) Eserlekuak probatu, eta norbaitek zin egin zuen aurrerantzean ez zela beste inon eseriko”. Zurginaren lana, baina, aldatu zen Von Bonbus baroiaren mezulari bat iritsi zitzaionean Firmini: “Presazko mezua: azaldu berehala baroiaren jauregira”.

Irakurleari Txinako tradizioko kontakizunak gogorarazten dizkio aurreko pasarteak; pintatzaile finarenak, Hang Gan-en zaldi magikoa edo Sarrionandiaren *Enperadore eroa* ipuin zoragarria; izan ere, iturri beretik edanda daude kontakizun hauek guztiak, baita Firminena. Langile fina, primeran aritzen dena artea sortzen, gauza ederak egiten, zoragarri politak eta ia perfektuak... eta botere nahian, langilearen trebetasun hori erabili nahi duen jauntxoaren istorioa.

Barrenetxeak testuaren eta irudiaren erritmoa tartekatuz irakurlea erabat sartzen du istorioan. Von Bonbus baroiaren berri ematen duten bi irudi zabaletan, zurginaren bila doazenean eta baroia ohean gaixorik ikusten direnetan, barneratzen gara zurgina eta baroiaren arteko harremanen mundura; baroiak, bere gudu eta handinahiak bultzatuta, hainbat gorputz atal galduko ditu... eta guztietan zurginak zurezko ordezkoko bat egingo dio guztien onespenean jasoz: “Lan bikaina, zurgina jauna, bikaina benetan! Zurezko esku hau, zalantzarik gabe, lehengoa baino hobea da!”, eta esku biak eta zangoak galdua ere baroiak gerra ontzi batean burua galdu arte. Eta zurezko burua egindakoan, baroiak ez baina haren ingurukoek adierazi zioten zurginari bere lan aparta: “Lan bikaina, zurgin jauna, bikaina benetan! Zurezko buru hau, zalantzarik gabe, lehengoa baino hobea da!”.

Eta hitz horiekin amaitzen da, ironia puntu hori jarrita, ipuina.

Baroiaren hari nagusi horren barnean, baina, Barrenetxeak beselako istoriotxo batzuk ere, errotari xuhurrarena kasu, sartu dizkiugu opari; zurginaren izaera hobeto ulertzen lagungarri eta irakurle guztion gozagarri.

Irudien mailagatik zen ezaguna autorea eta orain tesutuagatik ere; eta guk ere, hauxe esan genezake, ipuinean bezala: “Lan bikaina... lehengoa baino hobea!”. ■

Xabier Etxaniz Erle



Tantak.
Hainbaten artean
EHU, 2013

25 urte irakaskuntzaz gogoetan

DAGOENeko 25 urte egin ditu *Tantak* aldizkariak, pedagogiaz eta euskarazko irakaskuntzaz hausnarreran. Hezitzaileei zuzendua, EHuko irakasleek eginga da eta sei hilero kaleratzen dute. Urte hauetan guztietan egile ugari hartu du parte eta artikulua, esperientzia eta ikuspegi mordoxka argitaratu dira; horien aurkibidea egin dute azken alean (25. bolumena, 2. zenbakia). Eskoletako hizkuntza ereduak, ikasteko ohiturak, teknologia berrietan irakasleek behar duten prestakuntza, ikastetxeetako antolakuntza, ahozko literatura, jolas librea, ikaskideen arteko harremanak, talde baloreak, auto-ikaskuntza, motibazioa, ebaluazio motak, heziketa artistikoa, ikas-estrategiak, generoa, gaitasun emozionalak, sormena, gurasoen rola, eskolasareak, elebitasuna... Ugariak eta anitzak dira jorrotutako arloak, eta gai horietakoren batean sakondu nahi duenak gida interesgarria aurkituko du azken zenbaki honetan.

Horrez gain, beste lau artikulua ere jaso dituzte aldizkarian: web 2.0 tresnetan oinarritutako irakaskuntza prozesuaz; orientazio eta tutoretza planen inguruan; Donostialdeko gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzuetako profesionalen lanari buruz; eta eztabaida taldeetan erabiltzeko NVivo8 erremintaz. ■

Mikel Garcia Idiakez

